

SUGEAREN UMEA, SUGEKUMEA

Lehorraren ondoren bustia, euriaren ondoren eguzkia, jauntxerkiaren ondoren demokrazia, gogorkeriaren ondoren askatasuna eta gerraren ondoren bakka nahi izaten dugu.

Baina lehorrak lehorteak dakar, euriak euritea, jauntxokeriak jauntxokeria, gogorkeriak gogorkeria eta gerrak gerra.

Azken denborotan, Portugal izan da gogorkeriaz nazkatutik askatasun bidetik abiatu den herria. Demokrazia eta askatasuna maitatu zituen aginte larderiokoiaren garaian. Oso penatua eta zarpatua zen herria. Langabeziak, goseak, atzeriratu beharrak eta espetxean egon beharrak zeukan penaturik.

Baina ekaitzaren ondoren laino arteko eguzki goxoak egin zion irrifar herriari. Aginte larderiokoiaren etsai guztiak lagua ziren, bat ziren. Etsai haundi eta zakar baten aurka ziharduena. Ezta goxoetan zebiltzen etsai ankerraren heriotza ospatzu.

Berritoe ere, ordea, bakoitza bere aldera tiraka hasi da. Berritoe ere indarrak aginduko duela dirudi.

"Gertatzen ari denaren berri eman behar diegu herriari. zeregin haundia duzu horretan. Baina alderdi eta taldeen burrukaleku antzu ez dezakegu bihurtu telebista, Portugalgo herriak ez tait du burruka hoietatik ezer onik ateratzen". dio Conceicao e Silva komandanteak. Armadak betearaziko dio hemendik aurrera eta espetxekoa telebistari.

Indarrez onartu beharko ditu berriz ere herriak indartsuaren egia eta arrazoiak. Aberasgarri zitekeen talde desberdinen arteko eztabaida, elkarriketa eta irizti trukea lehengo^a aginte larderiokia desegin arte. Orain ez dute denek sinisten eztabaidak, elkarriketak eta irizti trukeak dakarren aberastasuna. Herriarentzat antzu bilakutzen dela uste du zenbaitak.

Izan ere urtetako gogorkeriak ez ezakeen demokrazia jatorraren girokor sor. Sugearen umea, sugekume izan ohi da.

Gure artean ere nor ez da demokrazia eta askatasunaren zale? Agintekeriaren aurkako talde guztiek demokrazia eta askatasuna ipintzen dituzte hilturuz bezala. Baina egiaz ote gara demokraziaren eta askatasunaren zale? Ala bakoitzak, bere irizitziak, bere jokabideak, eta bere interesak babesteko eta zaintzeko bakarrik aipatzen ditu demokrazia eta askatasuna? Zerk ematen digu min, beste gizonen irizitziak, beste taldeen onak eta jokabideak duten eskubidea eta balioa aintzatzotzat ez hartzeak ala geurionak onartuak ez izateak?

Munduan egiazko demokraziarik ez dagoela, jakin. badakigu. Baina demokrazia izeneko xertxobait dutenen jendeetatik ere oso urrun gaudu. Ez diegu elkarri ezer opa. Denek guk bezala pentsa eta joka dezatela nahi dugu.

"Halako idazle ez bada aldatzen datorren urtetik aurrera ez dut Z. Argiari hartuko" esaten zigan lehengo astean harpidedun batak. Gipuzkoako erretore agurgarri batek honako hau idazten zigan: "Z. Argiaren arpidedun zerrendatik kendu ezazu nere izena. Ez dut geiago artu nai, oraingo bidetik dijoan bitartean. Zeruko argia zabaltzen baño geiago, itzaitzen ari dela uste dut. Besteak beste (halakok) diona nere galbaitik ezin pasa da. Gerra aurretik eta ondoren ainebete urtean ain gogotsu irakurri detan aldizkaria nteak min aundia ematen dit, baña... ezin iruzur egin. bada, nere barruari".

Urtean zehar erretoreak egindako hiltzaldi eta hartutako jokabide guztiekin konforme diren eliztarrek bakarrik joan behar badute elizara alferrik daude harlanduzko etxe eder hoiek.

Inor gaizki uzteko asmorik gabe aipatzen dugun jokabidea dugu. Beste mila har daitzeak eskuinetik eta ezkerretik. Bortxakeriaz betetako giroa sortu dugu geuron artean. Hautabebarra datorrigiunaren elkarri emango dizkiogun hitzak ahuntzaren gauerdiko ezula bezalatsu gertatuko dira.

Geuron artean eraman geiago ez badugu, eta demokraziaren jokoetara eta gehiengoaren erabakietara hobeto ez bagara biltzen, indarra izango da nagusi gero ere.



Literatura garaia eta literatura entretenigarria

Literatura produzitzen eta kontsumitzen den gauza bat da.

Auto produzioan eta kontsumoan ez legoke Mercedesek, Mercedes basterik ez balego. Hori segituan konprenitzen da.

Bestealde, kalitate gaia erlatibo da. Ez dago neska politik, beste neska itxusi —pardoni!, ez hain polit! — batzuk gabe. Neska bati polita esatean beste bost insultatzen dira.

Honelako arau sinple batzuek literatura eremuaren ere baliozkoak izan behar lukete. Eta euskal eremuaren baliozkoak ez badira, hortxe ikusten da gure merkatuaren kalamidada.

Lehenago, erretratatzeko, poesiaren kurosidadez, euskara itasteko edo euskarari laguntzearen, hartu ohi genuen liburu bat esku artean. Geroxeago liburu interesgarri batzuk alegatu ziren, eta, kasik akordatu ere gabe, liburuagatik beragatik irakurtzen hasi ginen. Hasi berriren eten behar izan genuen ohihura hori, halare. Estudiorako, baten eta besteren irizitziak ezagutzeko, burrukarako, irakurri behar. Makina bat porlaneko literatura iruinsi behar izan dugu: sekulako sai mandadoak (haundi ta antzu).

Arras mandotu ez den xertxobait gelditu zaigu, haatik. Poesia ta, hola. Baina zera hori ere: superazio afan gogokarri bat. Nobela: teknikarik modernoenen feria, denak historiara pasatzeko eginda. Poesia: bihar eta etziko ta etzidamukoa. Edonora begiratu, perfekzio hutsa nondinahi. Potaje piska bat bazkaldu nahi, eta inon ez angulak eta basterik.

Beharbat atzo erdipurdizko gauza gehiegi egiten zen. Ez zuen appetitunik ematen. Gaur, gauza «n» gehiegi. Appetitu kentzen du. Gauza txar batzuk oso onak ginituzke. Gustora irakurtzen diren nobela eskas batzuk, esaterako. Tiro batzuk, amodio sentimental oiska bat, onak eta gaiztoak segituan ezagutzeko modukoak eta espero ez genuen bukaera bat. Honelako nobela bat oso nobela orijinala litzateke gaur euskaraz.

Eta, euskarak, urtean halako hogeita hamar gutienez behar ditu.

Euskal literatura jaso behar bazen, ederkiki, orain, dena aldrebes dadukagu literatura zabaltzeko. Zabaldur beharra bait dago.

Honez gero, literatura onari eusteko ere zabalteak nahitaezkoa dirudi.

Sariak obra «hoberenentzat» dira denak. Dozena bat sariketa urtean jarri beharko lirateke obra entretenigarrietzat, honelakoak komertzial bihurtu arte behintzat. Orduan berriz itzul gintezke literatura garaia Sari bidez subentzionatzera.

Argitaldierik beren izen onari begiratu behar diote eta onik hoberena bakarrik nahi lukete. Ontasun hutsetan itoko dira, txarretara ere berehalaxe irikitzen ez badira.

Idazleek ez dute gauza «onak» idaztea beste enpeinurik. Onak eta azken-azkeneko teknikaz borobilborobiduk. Berritasun eta teknika guztiak probatu, ta laster ez dute jakingo zer egin, ezer berririk ez zale geldituko ta.

Kritikuko gara okerrak. Ez du gu kemenki, sotilki eta soliki denok dakiguna esateko: holako nobela, ohi den bezala, guziz berria dela. Eta berri izatea ohizkoa denez, ez dela batera berririk. Beste oso nobela ona omen da, azkeneko eskolaren arabera, betiko ta betiko irakurleentzat. Beste saiakera hura, berriz, Deustuko profesore aspertuei eta Urola aldeko harri-jasotzaileei gomendatzen diegu: Jesukristok basamortuan zebilenen ere ez zukeen irakurriko, tentazio haundiz ezpada, haririk ez bait zuen jan nahi harek ere. Beste poeta horrek Parnasorako idatzi du eta onena hango Argitaldarien bati enkargatzea zukeen. Alderantz, besteon gisakorik esateko ausardiak ez dugu: iaz gustoen irakurri nuen liburua Txingoz izan zen. Edo ta: nobelatox honek teknikari eta ez dakar errebelazio berririk, baina —gustora irakurtzen da. Nobela baten ona izateko lehen baldinkizuna horixe denez gero, eta abar: nobela txar hau onak baino hobe da. Historiak ez du aipatuko (Onaizidena bezalako batek izan ezik). Baina beste denak baino arrazoi gehiagoz pasako da historiara, historiariak egon dadila, egiten bait du. Hau historiaren oinarri-oinarrian egongo da, izkurtuan. Besteak eskaparatean. Halari, intelektualek bati jakingo dute inportanteona oinarrian dagoela.

Honela idatzi beharko lukete kritikoei, kritikoen bildur ez balira.

Baina otsosa otsorearen ez bezala, kritikoaren etsaierik bildurgarriena kritikoak da.

Euskal Herrian kritikorik ez diren kritiko batzuk badira: liburu bat agertzen denean errebistetan zerbait idazten dute, irakurleak liburuaren erostera animatzearen. Horiek diraoenak. Beste kritiko batzuk ere badira, asko omen dakitenak eta. Jende serioa hau. Oso zorrotza. Haundikiel dagokien bezala, gutitan agertzen dira jenduarrean. Ezer ez zale nahikoa onik iruditzen, deusik ez aski zuzen (adiskideren baten lanak ezpada, edo ezta hori ere). Bestela, zu ni baino kritiko gogorragoa bazara, edozeinek pentsa dezake zu ni baino kritiko hobea ta objetiboagoa ta jakitunago ta inparzialagoa zarel. Kritiko ona izatea edozeini txitxiki ateratzea da. Kritikuon artean norgehiagoka harriarri bat dago, zein zitalago izan, Zeinek falta gehiago atara.

Sariketaon, Argitaldarien, kritikuon aurrean, idazleak ia-ia itorik balditza, dorigorreen arau hilezkorren bat asmatu nahita. Idazleon aurrean Sariketek, Argitaldierik, kritikuek, obra perfektuak baizik ez dituzte aintzatzotzat hartzen. Denon artean denok itoko gaituen lazoa egin dugu.

Ona ta supermodernoa basterik publikatzen ez denean erzipide eta neurri denak gaitzen dira. Nobela bat agertzen da eta Dostoiwskiren mailarik ez badu, txarra iruditzen zaigu. Hego-Amerikako nobelagileen azken-azkeneko taurik ez badakar, atzeratua da. Erabateko ala urkumedia. Hoberena ez dena ez da ezer.

Thomas Manni, milagroaz euskaraz idaztea suertatu izan balitzala, seguru asko hemengo kritikoei txepetx eritzioko zioten: oraindik XIX mendeko estilon idazten du, esango zuten. Soljenizyne edo Böllfiek ez zuketuen sekula sari apalenik irabaziko Euskal Herrian.

Literatura garaiazen izenean, entretenigarria izotzen ari gara. Izan ere, zein atrebite giro honetan, normal izaten? Gizon korriente bat, liburu korriente bat idazten duen Autorea, kritiko korriente bat? Heme perfektoa izateko obligazioa dago.

Joxe Azurmendi

Lana, langilea, lantegia TOREROAK

Bai irakurle, gaurko lan honi irakurri duzun izenburu hori ipini diot, eta ez dut uste hain oker ibilikio garenik. Eta ez, noski, «Cordobes» delakoarekin eginak dituzten «in-juzitziak» salatatzeko asmoz gatzokizulako.

Toreroen historiaz zerbait irakurri duenak, eta neronek ez dut horretarako umore haundirik izan, aspaldiko ofizioa dela badaki. Ez da gaur gaurkoa, torerogintza delako.

Baina azken aldi honetan, lantegi barruan torero ofizioa amaika jaun trebe azaldu zaigu. Eta euren egitekoa onki betetzen duela aitortu ere aitortu beharrean gara. Nolako toreroak gero!

Torero on batek, besteak beste, zezenen adarretatik nola libratuko, aroi eta bizkor ikatu behar du. Ahaliak eta arriskurik gutxienera zuzentzen behar ditu gauzak, eta horretarako zapi orria onki erabili behar du zezenak zuzenean bertara joaz huts eoin dezan. Gaiñon-tzekoak, beronikak eta txikuellinak, manoleitinak eta besteak bere eginkizuna ederreteko baino ez du erabiliko.

Lantegi barruko toreroak aintzarakoan, txantxetan eta abiltzan edo caldetiko dio noraitzek bere buruari. Batak eta besteak, equeñorak, lantegi bitzira onorak eta toreroak izan dezaketen lantegi eta zer ikusia asmatzea, ez baita hain erraza.

Baina, «aena» gehiegi luzatu baino lehen, gaitzen arrastora.

Azken aldiak kinka nagusirik bereak eta bi egin ditu: kolokan

zeuden zenbait lantegi lurpean utzi du. Prezioak gorantz jotzen duten garaian jomalek erabat izotzurik utzi ditu eta langilearen egoera garraztu du behin eta berrit.

Izan ere, langileak dakienez, horrelakoetan jokabidea ez da batera erraza. Gogor antzean jokatzu gero zenbait jende lanik gabe gelditzeko arriskuan dago, almatzenak ongi horniturik daudelarik nagusiak luzarora irau dezake. Amore ematen hasi ezkerre, berriz, langilearekin egin du.

Eta gauzak horrela daudelarik, langilearen batasuna behin ere baino beharrezkoago den garaian, egoera guzti hau langileari indarra sendotzeko, batasunari eutsiaz, arerrera jotzeko, erabili beharrean, hori hazi zaizkigu batzuk, torerogintzan, zapi eta guzti, festa prestatuz.

Horko agindur beharra, horko konsignak bete beharra, horko eskiriol hotsa, horko... zezen festa.

Bienbitartean, noren aurka eta zertarako gabilzan ahaz erazi dituge, zenbaitetan langile arteko gorroto eta amorrua zapaltzailearenakakoa baino haundia izan da. Elkarren arteko borroak langile indarrak erre-kiskali ditu. Asketan lantegiak Aste Santuko prozesioan zirkudien, bakoitzak bere santuari, nor bere taldeari, kandela pizten ziolarik. Bi paretak joaz tanta irabazteak ez du ezer balio sakaia ateratzerakoan falta egitekotan. Berrit lehenen gaudu, agian okerrago.

Baina zezenenak eta zozoenenak alde batera utzi, langileak zentzurik asko baduela erakutsi du: gau-

zak, joerak, deiak, gero eta zorrozkiago epaitzen ditu: lan serioak, sakonak, zentzuzkoak, zuhurrak, irakurkorak irabaziko du azken tanta. Bakoitzak nor bere lana azter bezala, azken hitza langilearen esku uzten dugurik.

MIKEL UGALDE

zeruko ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak.
Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezelza Iturriza

ARPIDE SARIA:

Barruan	400 pezeta
Korroeo batasunetako herrietan	620 pezeta
Aterrietako beste herrietan	460 pezeta
Airez	Aldez aurretik galdutu
Salmenta (ale bakoitza)	10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkoka:
«Gráficas Navasas»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D.L.: NA. 80-1963